



---

## FORU DEKRETUA

Toki Administrazioaren Saila  
Toki Administrazioaren Zerbitzua  
Esp. zk.: 15/21-AL

### **Diputatuen Kontseiluaren 39/2015 Foru Dekretua, ekainaren 23koa, Arabako toki administrazioen fakturen kontabilitate erregistroa sortu eta haiek izapidetzeko prozedura onartzen duena.**

Toki Administrazioaren Sailak dauzkan egitekoetatik bat da Arabako toki erakundeei laguntza ematea administrazio elektronikoaren arloan. Aspalditik erabiltzen ari da Arabako Foru Aldundia eskumen hori, baina indartu egin da toki araubidea berriki erreformatu delako, eskumen hori aldundi guztiek – foru aldundi zein araubide erkideko aldundi izan– berenezkoa duten eskumen gisa ezarri baita. Lehenago, ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izatearenak, emana zien probintzietako aldiei eginkizun nabarmen bat, toki administrazioei beharrezkoa zeukaten laguntza eman behar zieten-eta arlo horren inguruan.

Bestalde, abenduaren 27ko 25/2013 Legeak, faktura elektronikoa sustatu eta sektore publikoan fakturen kontularitza erregistroa sortzekoak, xedatu zuen nahitaezkoa zela administrazio publiko guztiek beharrezko baliabideak izatea gisa horretako fakturak jaso eta izapidetzeko, hornitzaileei ordaintzeko prozedurak arintzeko tresnak izaki, eta aldi berean azpimarra egiten zien aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren printzipioei.

Konstituzio mailarekin aintzatetsita dagoen aurrekontu egonkortasuneko printzipioa eta apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoan, bildurik dauden sektore publikoaren aurrekontu politika eraentzen duten gainerako printzipioak betetzeko, eta arlo horretan Europako araudian adostuta dauden eskakizunak gordetzeko, herri administrazioek beren finantza eta kontabilitate egoera kontrolatu eta egiaztatuzeko mekanismo eraginkorrak eduki behar dituzte.

Arlo horretan, fakturak modu informatizatu eta sistematizatuan kontrolatuz eta egiaztatuz berankortasunaren jarraipen zorrotza egin daiteke, ordainketen batez besteko aldia deritzon adierazle baten bitartez. Adierazle horrek, administrazio bakoitzaren merkataritza arloko zorrak bistaratzeko bidea ematen du. Herritarrek baliabideak jartzen dituzte botere publikoen, kasu honetan toki erakundeen, eskura. Baliabide horien kudeaketa eraginkorra, gardena eta arduratsua egiteko, eta erakunde publiko bakoitzaren ekonomia eta finantza egoera bereziari buruzko informazioa uneoro eta etengabe emateko eskakizunak kontuan hartuta, Arabako foru sektore publikoak informaziorako eta jarraipenerako tresnak bereganatu behar ditu nahitaez, beharizan horiek behar bezala betetzeko.

Xede horiek erdiesteko, foru dekretu honen bidez beharrezkoak diren mekanismo komunak eratzen dira, Arabako toki erakundeei fakturazio elektronikoari dagokionez bete behar dituzten betekizunak betetzeko, baldin eta foru aldundiak kudeaturiko kudeaketa aplikazioak erabiltzen badituzte. Hauexek egin nahi dira: faktura elektronikoen sarrera puntu bat sortu hornitzaileek fakturak han aurkeztu eta



elektronikoki administraziora eta, hala badagokio, fakturak izapidetu behar dituen organo eskudunera iritsi daitezten, eta sarrera puntu hori garatzea, bai lege xedapenek bai sistema modernoago eta eraginkorragoek hala eskatzen dutelako.

Horregatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

## **XEDATZEN DUT**

### **I. KAPITULUA**

#### **Xedapen orokorrak**

##### **1. artikulua. Xedea**

Foru dekretu honen xedea gai hauek dira:

1. Arabako toki administrazioaren fakturen sarrera puntu orokorra eratzea eta haren eskakizun funtzional eta teknikoak arautzea.
2. Faktura elektronikoak beren eremuan izapidetzeko prozedura eta organo eskudunek egin beharreko jarraipen jarduketak arautzea.

##### **2. artikulua.- Aplikazio eremu subjektiboa**

1. Arabako toki administrazioa osatzen duten erakundeen ondasun eta zerbitzuen hornitzaileen arteko harreman juridikoen esparruan egindako fakturei aplikatuko zaie foru dekretu honetan aurreikusita dagoena.
2. Foru dekretu honetan xedatzen duenerako baino ez, udal kudeaketa elektronikoko foru sistema integratua erabiltzen duten erakundeak izango dira toki administrazio. Hain zuzen ere hauek:
  - Arabako udalak, Gasteizkoa izan ezik.
  - Arabako kuadrillak.
  - Partzuergoak edo antzeko beste erakunde batzuk.

##### **3. artikulua. Arabako toki administrazioaren faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrarekin bat egitea.**

Foru dekretu honen 2.2. artikuluan jasoriko toki erakundeek bat egingo dute modu automatikoan foru dekretu honen xede den puntu orokorrarekin, baldin eta foru dekretu hau indarrean sartu eta bi hilabeteko epean ez badute adierazten aurka daudela.

Edonola ere, toki erakunde bakoitzak bere autonomiaz baliatuz, edozein unetan eratu ahalko du bere sarrera puntua edo eratuta dagoen beste puntu batekin bat egin ahalko du.



## **II. KAPITULUA**

### **Arabako toki administrazioari fakturak aurkezteko betebeharra**

#### **4. artikulua. Fakturak erregistroan aurkezteko betebeharra**

Aurreko artikuluetan definitu diren erakundeetatik edozeini entregatutako ondasunengatik edo egindako zerbitzuengatik faktura bat jaulki duen hornitzaileak, foru dekretu honetan xedatuta dagoenaren ondorioetarako, hura administrazio erregistro batean aurkezteko betebeharra izango du, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenaren, 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hogeita hamar eguneko epean, salerosgaiak entregatu ziren edo zerbitzuak eman ziren datatik zenbatzen hasita. Lege honetan ezarritako denborari eta aurkezteko erari buruzko baldintzak betetzen ez diren artean, ez da ulertuko erregistroan fakturak aurkezteko betebeharrak hori bete denik.

## **III. KAPITULUA**

### **Faktura elektronikoa Arabako toki administrazioetan**

#### **5. artikulua. Nola erabili faktura elektronikoa Arabako toki administrazioetan**

1. Foru dekretu honen 2.2. artikuluan jasoriko administrazioei ondasunak entregatu edo zerbitzuak egin dizkioten hornitzaile guztiek faktura elektronikoa jaulki eta igorri ahal izango dute. Betiere, faktura elektronikoa erabiltzera eta foru dekretu honetan arautzen den sarrera puntu orokorrean aurkeztera behartuta egongo dira ondorengo erakunde hauek:

- a) Sozietate anonimoak.
- b) Erantzukizun mugatuko sozietateak.
- c) Pertsona juridikoak eta nortasun juridikorik gabeko erakundeak, espainiar herritartasunik ez badaukate.
- d) Egoitza Espainiako lurraldean ez daukaten erakundeen establezimendu iraunkorrak eta sukurtsalak, zerga araudiak ezarritako eran.
- e) Aldi baterako enpresa elkarteak.
- f) Ekonomia intereseko taldeak, ekonomia intereseko Europako taldea, pentsio funtsa, borondatezko gizarte aurreikuspeneko erakundeak, arrisku kapitaleko funtsak, inbertsio funtsak, aktiboak erabiltzeko funtsak, hipoteka merkatua erregularizatzeko funtsak, hipotekak titulizatzeko funtsak edo inbertsioak bermatzeko funtsak.

2. Fakturazio elektronikoa nahitaez aurkezteko eta sarrera puntu orokorrean entregatzeko betebeharrak horretatik kanpo egongo dira 5.000,00 eurora arteko fakturak, BEZa barne. Hala ere, 1. paragrafoan xedatuta dagoena aplikatuz foru dekretu honen 2.2 artikuluan aurreikusitako erakundeetako bati ondasun bat entregatzeagatik edo zerbitzu bat emateagatik faktura bat formatu elektronikoa aurkeztu behar duten hornitzaileek aurrerantzean faktura elektronikoa erabili beharko dute ondasunak entregatzen edo zerbitzuak ematen dituzten bakoitzean.



Foru dekretu honen 2.2. artikuluan adierazi diren erakundeek bultzatutako kontratazio prozedurak izanik, aurreko idatz-zatian aipatu diren hornitzaileek faktura elektronikoa jaulki eta igorri beharko dute esleipenaren zenbatekoa 5.000,00 eurotik gorakoa denean BEZa barne, kasu bakoitzean fakturatzen den zenbatekoa edozein dela ere.

## **6. artikulua. Faktura elektronikoen formatua eta haien sinadura elektronikoa.**

Foru dekretu honetan aurreikusitakoaren eraginetarako:

1. Arabako toki administrazioari igortzen zaizkien faktura elektronikoen formatu egituratua eduki beharko dute, eta ziurtagiri aitortuan oinarritutako sinadura elektronikoa aurreratuz sinatuta egon behar dute, Diputatuaren Kontseiluaren maiatzaren 28ko 18/2013 Foru Dekretuaren, fakturazio arloko betebeharrak arautzeko erregelamendua onartzen duenaren, 8. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Toki Administrazioaren Saileko diputatuaren Foru Agindu bidez faktura elektronikoen formatu egituratua zehaztuko da.

2. Ziurtagiri aitortu batean oinarritutako zigilu elektronikoa aurreratua ere onartuko da. Ziurtagiriak faktura elektronikoa zigilatzen duen pertsona juridikoa edo nortasun juridikorik gabeko erakundea identifikatu beharko du, bere izenaren edo izen sozialaren eta identifikazio fiskaleko zenbakiaren bitartez.

## **IV. KAPITULUA**

### **Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra**

#### **7. artikulua. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra**

1.

Foru dekretu honen 2. artikuluko 2. paragrafoan definituriko Arabako toki administrazioek faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra edukiko dute, zeinaren bidez erakunde horiek beraiei dagozkien faktura elektronikoen guztiak jasoko baitituzte.

2. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorra bitarteko bat izango da, faktura aurkezten duenaren eta faktura erregistratzeko eskumena duen kontularitzako bulegoaren artekoa.

3. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrak foru dekretu honetan zehaztutako formatuan faktura elektronikoa bidaltzea ahalbidetuko du. Hornitzaileak edo faktura aurkeztu duenak fakturaren izapidetze egoera kontsultatu ahal izango du.

4. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorraren bitartez aurkeztutako faktura elektronikoen guztiak, automatikoki, faktura elektronikoen puntu orokor hori kudeatzen duen administrazioaren edo erakunde publikoaren erregistro elektronikoa batean sartuko dira, eta jaso izanaren agiri elektronikoa bat bidaliko da erregistro horretatik, faktura aurkeztu den data egiaztatuko duena.

5. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrak zerbitzu automatiko bat emango du, fakturak erregistratzeko eskumena duten kontabilitate bulegoen esku uzteko edo berorietara elektronikoki igortzeko faktura elektronikoa.



6. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorraren baldintza tekniko arautuak Toki Administrazioaren Saileko diputatuaren foru aginduaren bidez ezarriko dira.

## **V. KAPITULUA**

### **Fakturen kontabilitate erregistroa eta izapidetze prozedura**

#### **8. artikulua. Fakturen kontabilitate erregistroa sortzea.**

1. Foru dekretu honen aplikazio eremuan sartzen diren subjektu guztiek fakturen kontabilitate erregistro bana izango dute haien jarraipena errazteko; erregistro horien kudeaketa kontabilitate eginkizuna izendatuta duen administrazioari edo erakunde publikoari dagokio.

2. Fakturen kontabilitate erregistroa kontabilitateko informazio sistemarekin lotuta edo bertan txertatuta egongo da.

#### **9. artikulua. Fakturak izapidetzeko prozedura**

1. Faktura jasotzen duen administrazio erregistroak zuzenean igorriko dio kontabilitate bulego eskudunari, idazpena egin dezan fakturaren kontabilitate erregistroan.

Faktura elektronikoen sarrera puntu orokor kasuan kasukoan aurkeztutako faktura elektronikoak elektronikoki igorriko dira puntu horretan izango den zerbitzu automatiko baten bitartez, fakturan agertzen den kontabilitate bulegoaren arabera dagokion fakturen kontabilitate erregistroa, edo erregistro horren esku utziko dira.

Baldin eta aplikazio informatikoen funtzionamendurako beharrezkoa bada, fakturan identifikatuta egon beharko da hura zein administrazio organori zuzenduta dagoen, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Sektore publikoko kontratuen Legearen testu bateratuko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriak ezarritakoaren arabera.

2. Kontabilitate erregistroan fakturaren idazpena egin ostean, identifikazio kode bat esleituko zaio adierazitako fakturari aipatutako kontabilitate erregistroan. Faktura elektronikoen kasuan, kode hori faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrari jakinaraziko zaio.

3. Kontabilitate eginkizuna esleituta daukan administrazio organo edo unitateak organo eskudunari igorriko dio, edo haren esku jarriko du, hala badagokio, faktura jaulki zuenak entregatutako ondasunarekiko edo egindako zerbitzuarekiko adostasun prozedura izapidetu dezan eta betebeharra aitortzeko espedienteari dagozkion gainerako jardueri ekin diezaien, eskumena duen kontrol organoari bidaltzea barne dela, aldez aurreko aginduzko esku hartzearen ondorioetarako.

4. Dagokion organo eskudunak betebeharra aitortu duenean, proposamenaren kontabilitate arloko izapideak edo ordainketa aginduak identifikatuko du proposamenaren xede den faktura (edo fakturak), fakturen kontabilitate erregistroan izendatutako identifikazio kodeen bidez.

5. Fakturen kontabilitate erregistroan kudeatutako informazioa eta kontabilitate informazioko sistemaren informazioa oinarri hartuta, toki erakundeak fakturen egoerari buruzko informazioa emango du, hornitzaileak edo fakturak aurkeztu dituenak hala eskatuta.

#### **10. artikulua. Informazioa artxibatzea eta zaintzea**



1. Faktura elektronikoak artxibatzeko eta zaintzeko ardura kontabilitate arloan eskumena duen administrazio organoari dagokio.

## **VI. KAPITULUA**

### **Faktura jasotzearen ondorioak eta lankidetzaz zerga administrazioekin**

#### **11. artikulua. Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrean faktura jasotzearen eta fakturen kontabilitate erregistroan idazpena egitearen ondorioak**

Faktura elektronikoen sarrera puntu orokorrean faktura jasotzeak eta fakturen kontabilitate erregistroan idazpena egiteak, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenaren, arabera administrazio erregistro batean aurkeztetik eratoritzen diren eraginak izango ditu soilik.

#### **12. artikulua. Lankidetzaz zerga administrazioekin**

Fakturen kontabilitate erregistroek bide telematikoak igorriko diote jasotako fakturei buruzko informazioa zerga administrazioari, zergen eta fakturazioaren arloko betebeharrak betetzen direla ziurtatzeko, haien kontrola dagokion neurrian. Arabako Foru Ogasunaren kasuan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio adierazitako informazioaren edukia nahiz bidalketaren prozedura eta aldizkakotasuna zehazteko.

#### **Lehenengo xedapen gehigarria. Faktura elektronikoen formatua eta beren sinadura elektronikoa eta zerga arloko ondorioak**

Foru dekretu honen 6.1 artikuluan aurreikusitako foru agindua onartzen ez den bitartean, igortzen diren faktura elektronikoak faktura elektronikoen Facturae izeneko formatu egituratuaren arabera (3.2 bertsioa) egingo dira, eta sinadura elektronikoz sinatuta egon beharko dira, XMLAdvanced Electronic Signatures (XAdES) zehaztapenaren arabera.

Lege honetan eta hura garatzeko araudian aurreikusitako faktura elektronikoa baliozkoa izango da, eta paperezko fakturaren zerga arloko eragin berberak izango ditu. Bereziki, egiaztagiria gisa erabili ahal izango da eragiketaren kengarritasuna ahalbidetzeko, zerga bakoitzaren araudiaren arabera.

#### **Lehenengo xedapen iragankorra. Faktura elektronikoa erabiltzeko betebeharra**

Foru dekretu honetan aurreikusitako betebeharrak ez zaizkie aplikatuko dekretua indarrean jartzen den unean jada eginda dauden fakturei.



### **Bigarren xedapen iragankorra. Faktura elektronikoen sinadura**

Onartutako ziurtagiri elektronikoko batean oinarritutako zigilu elektronikoko aurreratuaren edukia garatzen ez den bitartean, herri administrazioei aurkezten zaizkien faktura elektronikoen beren egiazkotasuna eta osotasuna bermatu ahal izango dute, ziurtagiri elektronikoen balidatzeko Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioaren @firma plataformaren bidez balidatutako ziurtagiri baten bitartez.

### **Azken xedapenetatik lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza**

Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru dekretu hau garatzeko, aplikatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak emateko.

### **Azken xedapenetatik bigarrena. Indarrean sartzea**

Foru dekretu honek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz,

**Javier de Andrés Guerra**

Diputatu nagusia  
Diputado General

**Javier Ruiz de Arbulo Cerio**

Toki Administrazioaren Saileko foru diputatua  
Diputado Foral de Administración Local

**Javier Gómara Urdiain**

Toki Erakundeentzako Zerbitzuen Zuzendaria  
Director de Servicios a Entidades Locales